

27 zk. 2010eko Abendua

# Ahotsa

Ordiziako ezker abertzalearen aldizkaria



- /// Ordiziak ezker abertzalearen legalizazioa behar du.
- /// Impulso al proceso democrático también desde Ordizia.
- /// Control de la gestión municipal: críticas y propuestas.
- /// Zaborren errausketa: hondakinak Goierrin?
- /// Presoekin elkartasunak etenik ez.

orain!

# Legalizazioa

Gora ezker abertzalea!





## Euskal Herriak ezker abertzalea behar du

★ **E**z dugu harrokeriaz esaten, umiltasun eta ardura osoz bazi- zik. Bistan da Euskal Herrian oinarritzko eskubide zibil eta politikoak zapalduta daudela, eta horien ukazioz urte luzetan bizi izan dugun egoerak askotariko sufrimendua eta eskubideen urraketa eragin duela. Egoera horri konponbidea nola eman simple, eta aldi berean oso zail izan dugu. Batez ere benetako borondaterik ez delako egon, eta horren ondorioz alderdien arteko akordio demokratikoa ezinezkoa izan delako.

Egoera honetan, ezker abertzaleak galdera hauek egin dizkio bere buruari:

- 1.- Zein da euskal jendarteak behar eta nahi duen etorkizuneko egoera politiko eta soziala?
- 2.- Zer egin dezake ezker abertzaleak eraginkortasunez panorama

hori urrutiko zeruertz edo horizontetik gaur egunera ekartzeko? Eta ezker abertzaleak eman dituen erantzunak honako hauek izan dira:

- 1.- Euskal jendartearen eskubide guztiak errespetatuko direneko egoera politiko bat desiratzen du. Zinez, inolako bortizkeriarik gabea; gatazka politikoak modu demokratikoan konponduko direneko; EHak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea izango dueneko; guztiok aukera berdinak izango ditugunekoa; elkarbizitza eta elkarlana, edota elkarbizitza eta konfrontazio politikoak, modu baketsuan biziko ditugunekoa...
- 2.- Ezker abertzaleak bat egiten du erabat euskal jendartearen desio horrekin. Horregatik, etorkizuneko egoera hori gaur egunera ekartzeko bere esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartu du. Hainbat alde bakarreko era-

baki hartu ditu (azken hamarkadetan ezker abertzaleak hartu duen erabaki estrategiko garrantzitsuenetakoa), baina geure lana ezinbestekoa bada ere, jakitun gara abertzale eta ezkerreko alderdi, eragile eta herritarren elkarlana ere ezinbestekoa dela.

Beraz, gaur egun, borrokatze-ko eta eskuratzeko dugun lehen- go helburua baldintza demokratikoak bermatuko dituen egoera politiko bat da: eskubide zibil eta politikoak bermatuko dituen, ezker abertzalearen jarduna legalizatuko eta jazarriko ez duena, indarkeria guztiak desaktibatuta izango dituen, presoak etxeratzeko neurriak hartzen hasiko dena... Eta hortik aurrera, bakoitzak bere proiektu politikoak defendatu, herritarrek askatasun osoz erabaki dezaten.

Hain simple, hain konplexu. Borrokarik gabe, eskurazina.



## Ordizia necesita a la izquierda abertzale

**N**unca han conseguido hacer desaparecer en Ordizia la actividad política y social de la izquierda abertzale. Ni por medio de las ilegalizaciones, ni por medio de la represión, ni por medio de la exclusión, han conseguido ni que desaparezca, ni que se esconda. Muy al contrario, ha estado muy presente en la vida municipal tanto a nivel institucional (Ayuntamiento) como social. Sin embargo, las condiciones a las que la han sometido las políticas del PSOE y PNV han generado una situación excepcional que resulta insostenible desde un punto de vista democrático. Por lo tanto, Ordizia necesita a la izquierda abertzale, y la necesita de manera normalizada y legal.

Por una parte Ordizia necesita a la izquierda abertzale, porque sin ella es imposible la nor-

malidad y convivencia democrática; porque en Ordizia es una de las fuerzas políticas que más puede y debe hacer para conseguir ese escenario de convivencia en el que se respete los derechos de todos los ordizarras, sin ningún tipo de exclusión y porque es la fuerza que desde Ordizia (pueblo y Ayuntamiento) más puede hacer para impulsar un proceso democrático a nivel nacional.

Pero por otra parte, Ordizia necesita a la izquierda abertzale porque es la fuerza que puede generar y garantizar un verdadero cambio a nivel municipal. Cambio que no sólo la izquierda abertzale, sino también otras fuerzas políticas, asociaciones y ciudadanas y ciudadanos reclaman. Y nos estamos refiriendo a un cambio en el modelo de gestión y políticas del Ayuntamiento (una ges-

ción que garantice verdaderamente la participación ciudadana, también en la toma de decisiones; un gobierno municipal transparente; un compromiso serio por la normalización del euskara; políticas educativas que solucionen problemas que arrastramos durante años...).

Por ello, la izquierda abertzale de Ordizia ha adquirido el compromiso de realizar un diagnóstico de la realidad municipal (valoración de la gestión de los cuatro años anteriores y análisis de la situación actual), de realizar un proyecto con propuestas y presentar un equipo comprometido y capacitado para llevarlo a cabo. Todo ello con la confianza en las propias fuerzas, y con el convencimiento de que para ello es necesario el trabajo conjunto con otras formaciones y asociaciones.

## Udal funtzionamendua itxura eta errealitatea

**U**dalaren funtzionamendua kezkatzekoa da. Alkatearen gestioa pertsonalismoan oinarritzen da. Leloa “nik agintzen dut” da, eta bere esanetara dagoen lagunez inguratzen da. Gainera, baztertu egiten ditu bai oposaketako zinegotzien proposamenak, bai bestelako irizpide teknikoak duten udal langileak, eta baita herritar eta elkarteak. Ez dago sailen arteko koordinaziorik eta ez dago planifikazio eraginkorrik. Udalak duen arazo nagusia oinarri oinarritzakoa da, eta langile, alderdi, elkarte eta herritar asko dira ikusten dutenak Alkatezaren gestioa itxurakeria baino ez dela, eta aldatu beharra dagoela benetako ekimen parte hartzaileak eta elkarlana bultzatzeko badira.



### Personalismo, amiguismo y falta de proyecto.

Esas son las características principales de la forma de gobernar el Ayuntamiento que tiene el Alcalde. Prueba de ello: contrataciones a dedo (comunicación y participación ciudadana); valoraciones y reparto de funciones en los puestos de trabajo promocionando a los que obedecen sin rechistar sus “órdenes” y arrinconando a los que realizan su labor profesionalmente y con criterio técnico (en la policía municipal, en juventud y deportes minusvalorando la labor de la técnica de juventud y asignando a otra persona sus funciones); falta de coordinación entre las diferentes áreas (para qué el área de participación ciudadana, si lo que realmente debe hacerse el impulsar la misma de manera natural en todas, como con Agenda 21, o Herri Hezitzailea)... Todo ello influye negativamente en la labor de los y las trabajadoras del Ayuntamiento y en el servicio que debe prestar el mismo.

## Noiz hartuko du Udalak serioски euskararen normalkuntza?



Hizkuntza baten prestigio sozialak eta normalkuntzak, eta Udal baten biziberritze planak, eskatzen du lanpostuetan ezarritako hizkuntza baldintzak zorrotz betetzea.

Hizkuntza normalkuntzan, murrizketarik ez!

**A**spaldian ari gara salatzen agintaldi honetan Udalean euskararen normalkuntzan eta erabileran atzerapausoak ematen ari direla: laneko erabileran, plenetan, komunikazioetan... Eta baita perfiletan ere. Azkena izan dugu Udalaren kaboren kasua. Lanpostuak hirugarren hizkuntza eskakizuna eskatzen du, baina itxuraz aukeraketa prozesuak posible egiten du kabo izendatzea eta praktikaldian eskakizuna akreditatzea. Jakina, askoz ere zentzuzkoagoa eta garbiagoa izango litzateke eskakizun hori aurretik betetzea, horrela ematen baitzaio hizkuntza bati behar duen garrantzia eta prestigio soziala. Jakina, bestelako kontua da Alkatezaren helburua bada kabo izendatzea norbait bere aginduek txintik ere esan gabe beteko dituen, agindu horiek zentzugabeak eta lege eta demokraziaren aurkakoak badira ere.

Ikusiko dugu zer egiten duen bere lanpostuko perfla betetzen ez badu, ez baita Udalean kasu bakarra.

## **Contratación de obras: ni transparencia ni igualdad de oportunidades para todas las empresas**

**U**rbanismoan skate pistarako bi lan ezberdin egiteko bi aurrekontu eskatu ziren. Lan ezberdinak eta aurrekontu ezberdinak ziren (bata bestea baino askoz ere merkeagoa, 3.000 eta 5.800 euro). Hala agertu zen akta batean, baina ondorengo beste batean garestienaren kopurua aldatuta agertzen zen, eta bestearen pareko agertzen zen. Beraz, enpresa bati aukera eman zitzaion aurretik aurkeztutako aurrekontu bat aldatzeko lana berari eman ahal izateko. Zergatik eman zitzaion enpresa bati aurrekontua aldatzeko aukera? Zergatik ez zitzaion beste enpresa bati eskatu? Udalak erakunde publikoa izanik argitasun osoz jokatu beharra dauka, eta ez enpresa lagunekin tratu preferentea izanez.



Por otra parte, el Alcalde tiene competencia para adjudicar directamente las obras menores. Sin embargo, aunque esa práctica sea legal, queda muy lejos de ser justa. Estamos viendo continuamente cómo se adjudican “obras menores” a las mismas empresas. El último ejemplo, las obras del hogar del jubilado adjudicadas a Ikena. Y además sin que hubiera partida presupuestaria asignada para ello! ¿Qué opinión tendrán de todo ello el resto de las empresas de Ordizia?

## **La falta de gestión del Ayuntamiento en el convenio firmado con CAF hace que no se cumplan los compromisos adquiridos**

**U**dalak enpresarekin konbenioa sinatuta du biltegiaren ondoko lurretan (Bonberi zahararen parean, erreka bestalde) Udal parke bat jartzeko, eta bertarako oinezko pasarela bat. Konbenioak bere konpromiso eta kronograma zituen. Udalaren utzikeriagatik, ordea, ez dira betetzen ari ezarritako epeak. Udalean honi buruz galdetu genuenean, Alkatea bera ez zen gai izan inolako azalpenik emateko.



¿Cómo va a ser capaz este Alcalde de informar de ninguna gestión, si precisamente eso es de lo que carece, de capacidad de gestión? Lo único que se gestiona y mueve en este pueblo es lo promovido por Ordizia Lantzen y la empresa contratada para gestionarlo. Gestión, que como denunciábamos anteriormente, nos resulta muy cara a los ordiziaras.

## Herritarren salaketa

**U**rdaneta kaleko espaloiak. 6-8-10 zenbakiak. Zorua irristakor. Ez da pikatuko, ez da tratamendurik emango. Arrazoia? Ez dago partidarik “lan txikiatarako”. Lehentasun osoa behar du izan jendearen segurtasuna. Partida honetan aurreikusita zegoena beste obra batzuetan gastatu da (adibidez, jubilatuen egoitzan). Txapuzaren beste adibide bat.



## Argiteria San Juanen

**U**daleko teknikariek Agenda 21eko irizpideak jarraituaz San Juango urbanizazio berrirako argiteria proiektua prestatu zuten. Plan hark argi puntuak eta potentzia gutxitzea zekarren (40 puntu gutxiago), eta ondorioz dirua eta kontsumoa aurrezteko. Bulego teknikoan bazuten horren berri, eta onartutzat ematen zuten. Baina lan hori aintzakotzat hartu gabe obraren lizitazioa atera zen, garestiagoa eta kontsumo handiagoa izango duena. Noren erabakia izan da? Ordizia Lantzenena? Non zegoen Alkatea bera izanik elkarte horren buru nagusia?

Ordizia Lantzen ha adjudicado unas obras que dejando de lado un proyecto elaborado por técnicos del Ayuntamiento (siguiendo los criterios de Agenda 21), suponen 40 puntos más de luz, y mayor coste y consumo.



## Las transferencias de crédito muestran la falta de rigor en la elaboración de los presupuestos municipales y en el gasto

**A**zken kreditu transferentzia azaroan egin da. Urteko laugarrena da, oker ez badaude; guztira 4 milioi euro inguru. Diru hori partida batzuetatik bestera mugitzeak esan nahi du ez dela aurreikusi hainbat gastu egitea, eta hainbat gastu egin direla aurreikusi gabeak. Horrek erakusten du Udala ez dela gauza aurrekontu zorrotz eta errealek batzuk prestatu eta gestionatzeko. Edo ez zaiola kobeni, modu honetara dirua modu libreagoan maneiatzen dutelako.



## La verdadera fotografía de la participación ciudadana y democracia en el Ayuntamiento

**I**a hilerok egiten dira udalean hainbat bilera behar adinako quorumik gabe, edo arloetako zinegotzi arduraduna azaldu gabe. Plenoetara bertara ere hainbat zinegotzi apenas agertzen dira. Udaleko hainbat arlotan hileko akta bat ere ez da egiten (beraz, bilera ere ez?). Oposizioari ez zaio behar adinako informazioa ematen, eta ez dira kontuan hartzen gure ekar-



penak. Erabakiak PSOE-PNVk hartzen ditu Gobernu Batzordetik atera ere egin gabe (beraz, hiru laguneren artean). Horixe da gure Udalaren parte hartzearen eta demokraziaren benetako irudia.

## Hau esperpento hutsa da

**A**urreko adibideek benetako argazkia erakusten badigute ere, horixe da Udalak ezkutatu nahi duena. Eta propaganda eta manipulazioarekin jarraitzen du. Azkena, gaztetxoekin egin duena. Udalak 12.000 euro gastatuko ditu DBHko 2. mailako ikasleekin parte hartze-

ari buruzko programa batean. Zer azaldu ote diete? Kritiko badira, parte hartze zuzena eskatzen badute, beren kasa pentsatzen badute, benetako demokrazia aldarrikatzen badute, udaleko asmoak zalantzan jartzen badituzte, espazio autogestionatuak antolatzen badituzte... zigortuak izango direla?



## Participación ciudadana. Ejemplos para desenmascarar al Ayuntamiento

**L**o que sucede con la “llamada participación” ciudadana y lo que sucede en Oiangu, no por no ser novedad tiene menor gravedad. Por un lado

nos bombardean con propaganda sobre las intenciones del Ayuntamiento para potenciar la participación de los ordiziaras, pero por otro lado las decisiones importantes las toman el PSOE y PNV en la comisión de Gobierno, no informan debidamente en las comisiones municipales e imposibilitan la labor de la oposición, castigan la iniciativa ciudadana no acorde con sus proyectos...

### Oiangu

**D**esde el comienzo del conflicto la izquierda abertzale abogó por una solución consensuada y democrática en Ordizia. La postura del Ayuntamiento obligó a la plataforma Oiangu Bizirik a recurrir a la movilización y a los tribunales. Siempre defendimos que no era la vía apropiada, y que estimasen lo que estimasen los jueces, el “dictamen” debían de darlo los y las ordiziaras. A pesar de que el Ararteko dio la razón a la Plataforma, el juez consideró que los ciudadanos no tenían derecho a recurrir la concesión, y ni siquiera valoró el recurso. El Ayuntamiento, promotor de la “participación ciudadana”, se sintió satisfecho. Sobre el recurso al Plan Especial, el TSJPV lo ha rechazado. Ahora el Ayuntamiento se siente doblemente satisfecho. Sin embargo, la cuestión de fondo no es jurídica, sino política. El proyecto ha fracasado, simplemente porque era inviable y la mayoría de los y las ordiziaras eran contrarias al mismo. Pero el PSOE y PNV lejos de reconocerlo, continúan con su política de hechos consumados. Durante las últimas semanas han gastado más de 200.000 euros reparando los postes y red de la cancha, y 4.428 en propaganda sobre la sentencia judicial, tiene problemas para recuperar el aval de Elkargi sobre el proyecto (120.000 €), contrata a Eulen para realizar las labores de limpieza (obligación de Ikengu)... Además, se han negado a condonar a la



Plataforma el pago de las costas del juicio, que asciende a 2.045, castigando así la verdadera participación ciudadana, simplemente porque cuestiona su forma de actuar. Los argumentos del Alcalde y del sr. Dubreuil sí que son dignos de publicar en la revista municipal en el apartado de participación ciudadana: la plataforma ha atacado al Ayuntamiento; si se condona la deuda cualquiera podrá atacar al Ayuntamiento, pues le saldrá gratis (¿a que suena a RuGALcaba?); la plataforma toma decisiones unilateralmente sin tener en cuenta a la ciudadanía... Dicen que todos tenemos derecho a la justicia, pero mientras los ordiziaras no lo tienen de forma gratuita, ellos gastan alegre y absurdamente miles y miles de euros de los y las ordiziaras. Dicen que habría que ver qué apoyo tiene la plataforma, olvidando las cientos de firmas que se presentaron, y que PSOE-PNV representan 1600 votos, mientras que los partidos contrarios a su proyecto representan a más de 2.300.



## Granja eta LORTEK: Udala noraezean, irizpide politiko eta tekniko garbirik gabe

**L**ORTEK enpresak Granja izeneko eremuan berrikuntzarako gune bat jarri behar du. Eta bertan Udalak baditu hainbat lursail, gune berria eraikiko den lekuan. Guk dudarik ez dugu interesgarri ez ezik, halako egitasmoak beharrezkoak direla, eta Udalak erraztu eta bultzatu egін behar dituela. Baina beti ere interes publikoaren ikuspegitik, eta irizpideak garbi izanda.

Enpresak lur sail hori lortzeko interesa agertu zuen. Auzia aztertzen hasi, eta udaleko teknikariak adierazi zuen ezinezkoa zela legez. Gainera, ezker abertzaleak proposatu zuen halako jabetza saltzea baino, egokiagoa zela kanon baten truke ematea, eta kanon hori, gainera, egitasmoaren neurriera erabakitzea (gutxi gora behera 18.000 euro urtean, lehenengo bi urteak salbuetsita). Halako batean, ordea, beste batzorde batean gaiari buruz galdetuta, bestelako irizpide juridiko batekin azaldu zitzaizkigun, adieraziz, terrenoa sal zitekeela, eta dirudienez PNV eta PSOEn jarrera zela terrenoa saltzea. Udala bai juridikoki, baita politikoki noraezean dabil. Gainera ere-

Rigor técnico y criterio político. Cuando acudimos a las Comisiones del Ayuntamiento no solicitamos otra cosa más que información. Y muchas veces nos encontramos con que el político del área no acude a la comisión, las actas no recogen nada, las explicaciones técnicas carecen de rigor o cambian de una semana a otra, el equipo de Gobierno y alcaldía carece de criterios claros... Y ello provoca que las decisiones se tomen improvisando, simplemente para salir del apuro momentáneo, cambiando de criterio o tomando decisiones sin reflexionarlas debidamente (ahora no se puede vender, a la semana siguiente sí; ahora no nos interesa, ahora sí...). Nuestra propuesta: promover el polo sin deshacerse de los terrenos municipales, fijándole un canon, y garantizando el desarrollo total del polo de innovación.

muaren garapena arriskuan gera daiteke, (nahiz eta guk aspaldian salatu genuen hor egін nahi zenarekin ez geundela ados). Izan ere, gunearen garapen osoa eta integrala egiten ez bada, gerta liteke enpresa batek bere asmoa burutztea, baina egitasmo osoa blokeatuta geratzea, esaterako, besteek urbanizazio kargei ezin badiete aurre egін.

## Sasieta Mankomunitateak zabor-bilketa sistema desberdinak aztertzea onartu du

**S**asieta Mankomunitateak pasa den apirilean Goierriko herrietan bosgarren edukiontzia jartzea erabaki zuela jakinarazi zuen. Egun horretan bertan, Goierriko hainbat alkate eta zinegotzik prozedurarekiko eta hartutako erabakiarekiko zituzten zalantza eta kezka publiko egin zituzten eta handik egun batzuetara, Goierriko 7 alkatek eta 15 herritako 62 zinegotzik (Ezker Abertzalea, Eusko Alkartasuna, Aralar, Ezker Batua eta zinegotzi zein alkate Independienteak), agerrialdi baten bidez, hartutako erabakiaren inguruan zuten iritzia adierazi zuten: inongo eztabaida eta azterketarik gabe hartutako erabakia izan zen.

Guztiok jakin badakigu gure gizarteak gaur egun sortzen duen hondakin-kopurua izugarria dela eta hori berori arazo bat dela. Arazo horri eman beharreko konponbideetan, ordea, ez dugu adostasunik aurkitzen: batzuek, errauskailua proposatzen digute, gizarte-eredu berarekin jarraitu eta "erosotasuna" ez galtzeko modu bakar gisa; besteok, aldiz, hondakinen sorrera bera azpimarratzen dugu abiapuntu gisa, hau da, kontsumoa, berrera-bilpena eta birziklapena ditugu oinarri. Lehen ikuspuntuak planeta fisikoki mugarik gabea bailitzan jokatzeko du; bigarrenak, ordea, planetak dituen mugak kontutan hartu eta gizakion eta ingurumenaren arteko oreka du helmuga, oreka hori gabe gizakiok ezingo baitio, ez bizi-kalitate egoki bati eutsi, ez bizitzari berari ere eutsi. Lehen ikuspuntuak, pilulak bailiran kentzen dizkio gaixoari eten-



gabe pairatzen dituen burukominak; bigarrenak, aldiz, gaixoak duen arazo zein den jakin, aztertu eta epe luzeko konponbidea eman nahi dio.

Horixe izan zen Goierriko hainbat alkate eta zinegotzik Sasieta Mankomunitateari eskatu ziotena: hondakinen arazoaren aurrean, ingurumena eta gizakion osasuna kontutan hartuko dituen hondakinak biltzeko sistema desberdinak ikertu eta Goierri aplikatzeko aukerak aztertzea. Eta horixe da, datorren urtean Mankomunitateak egingo duena: atez ateko bilketa eta sistema mistoa aztertuko ditu, herriek, mahai gainean izango duten informazioarekin, eztabaidatu eta egokien irizten dioten sistema hautatu ahal izateko.

## Zubietako errauste plantak sortutako eskoriak utziko dira Goierriko Mutiloako bertederoan

**Z**ubietan errauste planta eraiki nahian ari diren promotoreek aurreikusita daukate errausketak urtean gutxienez 68.000 tona eskoria sortzea (sartu diren zabor guztien pisuaren laurdena baino gehiago). Zer egingo dute eskoriekin? Batean eta bestean betelanak eta hormigoia egiteko erabiltzea aurreikusten dute. Baina denak saltzea lortzen ez badute? Goierriko Mutiloako bertederora joango dira.

Zubietako errauste plantak denentzako izango ditu "opariak". Hurbilen bizi direnentzako, haizean barrena zabalduko den kutsadura (gasak, metal astunak, mikropartikulak) gehi azpiegitura erraldoi baten burukominak. Erraustsak eta eskoriak urrutiagora esportatzea daukate pentsatuta supiztailleek. Errautsek biltegi bereziak behar dituzte, baina espero dute

euskaldunak baino pobregao bizi diren baten batzuek onartzea horrelakoak. Berdin eskoriak, adreilu, bloke, hormigo, asfalto eta abar bihurtuta. Baina urteroko ia 70.000 tona horiek ezin badira kolokatu estremeñoen, andaluzen edo marokoarren obra publikoetan... (inolako mesprexurik gabe egindako ironia da hau, intzinerazioa justifikatzen duten jende aberats hipokritek gero ez baitituzte erraustsak etxe ondoan nahi) orduan zer egin? Hori ere aurreikusita dago: Gipuzkoako Goierriin. Ondoren aurkezten dugun agiriaren 314. orrialdean garbi dio:

*"En el caso de que las escorias tratadas y maduradas no encuentren salida, total o parcial, en las utilidades de obra civil señaladas, es decir, en caso de que exista un desfase entre la oferta (producción) de escorias y la demanda (utilización) de las mismas, los excedentes se dirigirán a vertederos de las características mencionadas. El vertedero destino será el vertedero de residuos no peligrosos en el término municipal de Mutiloa (Gipuzkoa)".*





**L**egalizazio orain, Euskal Herriak eta Ordiziak behar duelako, baldintza demokratikoak eraiki behar ditugulako, prozesua bultzatzeko, aldaketa politiko eta soziala bultzatzeko, aitzakiarik ez dagoekako...

**E**lkartasun denda Ordizian, elkartasunak ez duelako etenik, elkartasuna ez delako delitu, elkartasunaz harro gaudelako, maite ditugulako...



## Bake bidean. Aterabide demokratikoen akordioa

**E**zker abertzaleak, Eusko Alkartasunak, Aralarrek, Alternatibak, Abertzaleen Batasunak, LABek, Hiruk, ESK-k, ELB-k, EILASek... eta beste hainbat eragilek Gernikan sinatutako akordioak dio konponbide demokratikoak honako baldintza hauek bete behar dituela:

- ETAk nazioarteko komunitateak egiaztatze-ko moduko su-eten iraunkorra eta aldeba-karrekoa aldarrikatzea.
- Eskubide zibil eta politiko guztien aitortza, proiektu politiko guztien garapena onartuz eta Alderdi Politikoen Legea indargabetuz
- Inkomunikazioa, mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta tortura mota guztiak, desgertzea, eta jarduera politikoengatikako prozesu judizialak bertan behera geratzea.
- Euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea, zigor neurri bereziak indargabetuz eta haien eskubide guztiak errespetatuz.
- Nazioarteko eragileen parte-hartzea sustatzea.

Horrelako prozesu baten testuinguruan, ezin-bestekoa izango da elkarrizketarako eta negoziazio politikorako guneak zabaltzea ondoko printzipio eta baldintzetan oinarrituta:

- “Mitchell Printzipioak” (gai politikoak konpontzeko, soilik bitarteko demokratiko eta baketsuak erabiltzea, indarkeriaren erabilerrari aurkakotasuna agertzea, negoziazioetan erdietsitako akordio oro errespetatzeko konpromisoa, soilik bitarteko demokratiko eta baketsuak erabiltzeko konpromisoa).
- Akordio politikoak lortzeko negoziazio prozesua eragile politiko, sindikal eta sozialen egitekoa baino ez da izango.
- Elkarrizketa politikoaren edukiek Euskal Herriko kultura politiko guztiak barne hartuko dituen akordioa izango dute helburu (euskal errealitate nazionala, eredu juridiko-instituzionala erabakitzeko ahalmena eta hura errespetatzea).
- Aitortza, adiskidetzea eta erreparazioa gatazka politikoak eta jatorri guztietako bortizkeriek eragindako biktima orori.

### **Acuerdo para un escenario de paz y soluciones democráticas. De Gernika a Ordizia.**

Es hora de aunar fuerzas, también en Ordizia. Por ello, la izquierda abertzale y EA de Ordizia se han comprometido a trabajar conjuntamente y promover iniciativas que posibiliten en nuestro municipio dar pasos para conseguir un escenario de paz y democracia. Durante las próximas semanas se llevarán a cabo en Ordizia varias de esas iniciativas. La primera de ellas, la presentación del Acuerdo de Gernika. Pensamos que siendo conscientes de nuestras diferencias y trayectorias, es hora de impulsar una única estrategia nacional y de izquierdas, también en Ordizia. Por ello, invitamos a todos y todas las ordizarras a participar en ellas y ser sujetos activos del cambio necesario.

## Santamaria, utzi bakean presoen argazkiak!!!

**B**ada urte eta erdi Lakuako gobernua presoen argazkiak kaleetatik kentzen hasi zela, argazkiak erakutsita «terrorismoa goratu» eta «terrorismoaren biktimei kalte» egiten zaiela argudiatuz. Baina elkartasuna kriminalizatu nahi dute eta espetxe politika kriminalaren salaketa ikusezin bilakatu, honela, politika horren inpunitatea bermatuz (larri gaixo direnak espetxean mantentzeko, bizi osorako zigorra aplikatzeko, sakabanaketarekin jarraitzeko edo torturatzeko). Horregatik, duintasunez eta irmotasunez erantzun behar dugu, ez dagoelako epairik presoen argazkiak edukitzea terrorismoa goratzea dela esaten duenik (Audientzi Nazionalak Txori Barroteko lau kideak absolutu zituen).

Argi eta ozen esan behar diogu alkateari, nahikoa dela! **Euskal preso politikoan argazkiek kalean egon behar dutela eta egongo direla** egungo espetxe politika kriminalaren inpunitatea salatzen.



## Gogoratu!

- **Abenduak 24:** 16:00etan Herriko Presoen aldeko Olentzeroa
- **Abenduak 29:** feria berezia. Herriko plazan goizean zehar mariskada eta arkume zozketa.
- **Abenduak 31:** 18:00etan, San Silvestren presoan alde korrika.
- **Urtarrilak 1:** gaueko 1:00etan, txupinazoa Gazte-txean eta brindisa Frai Andresen.

Gabonak iritsi direla eta, ez ahaztu herriko lagun asko oso urrutiti ditugula. Zure befotasuna helarazi iezaiozu gutun baten bidez, eskertuko dute eta.



**Ekain Mendizabal Mugika**  
(N° 928122) Division Iii C-253  
Maison D'arrêt Hommes De  
Fresnes 3, Allée Des Thuyas  
94.261 FRESNES CÉDEX  
(Frantzia)



**Pakito Mujika**  
C.P. De Zaragoza  
Carretera N-330  
50.800 ZUERA (Zaragoza)



**Rufino Arriaga**  
C.P. Puerto De Santamaria N° 1  
Apartado 555  
CADIZ (España)



**Idoia Mendizabal Mugika**  
Mod. Verde  
Prision Provincial  
Carretera De Vicolozano  
05.194 BRIEVA-AVILA  
(España)



**Mikel Otegi Unanue**  
C.P. Ocaña  
Calle Martires De Ocaña 4  
45.300 C.P. Ocaña  
TOLEDO (España)



**Mikel Korta Karrion**  
(N° 2000001958) 9.Moduloa  
C.P. Mansilla de las Mulas  
A 21 Km De Leon  
(Paraje Villahierro)  
24.210 LEON (España)



**Ainhoa Irastorza Otegi**  
C.P. Valladolid  
Modulo Mujeres  
Ctra Adanero-Gijon, Km 94  
47.071 VALLADOLID (España)

## Aquí viene el movimiento por los derechos civiles de Euskal Herria

**C**uando por fin se han abierto posibilidades reales de cambio y se dan pasos positivos en esa dirección, vemos que persisten conculcaciones de derechos que tienden a bloquear este proceso o a someterlo a las fluctuaciones de intereses partidistas o políticos.

Pero la inmensa mayoría de la población de Euskal Herria queremos decididamente que el proceso de cambio avance ya. Queremos ya un escenario donde se garanticen el derecho a la vida y a la libertad, el derecho a decidir libremente sin exclusiones ni vetos, el derecho a un futuro en libertad y paz para todos y todas. Por ello, la ciudadanía tenemos que implicarnos directamente, de forma activa, para conseguir el cambio de ciclo que todos, todas deseamos.



Ahora es el momento de dar el impulso decisivo al desarrollo de un movimiento por los derechos civiles y políticos en Euskal Herria y extenderlo por barrios, pueblos, escuelas, universidades y movimientos sociales. Que todos nos movamos, nos comprometamos para conseguir ya un escenario de paz, democracia y libertad para conseguir ahora ya:

- 1.- Que la ciudadanía de Euskal Herria sea el principal protagonista colectivo del cambio a un nuevo estadio de pleno derecho y de soluciones, tomando para ello la iniciativa a través de la participación y la movilización social.
- 2.- Que los Estados español y francés, tal y como corresponde a cualquier Estado democrático y de derecho, garanticen de inmediato y efectivamente el respeto y ejercicio de todos los derechos humanos, civiles y políticos a toda persona y colectivo, sin distinción ni excepción alguna.
- 3.- Que ETA dé una respuesta inmediata, firme y positiva a los emplazamientos de la Declaración de Bruselas y del Acuerdo de Gernika.

**Llamamos** de forma abierta y libre a toda la ciudadanía de Euskal Herria, a sus organizaciones sociales, culturales, deportivas y de ocio, a toda la sociedad civil vasca a promover, auto-organizar y desarrollar el **MOVIMIENTO POR LOS DERECHOS CIVILES Y POLÍTICOS** que se requiere para alcanzar el nuevo ciclo que anhelamos.

27 zk. 2010eko Abendua

# Ahotsa

Ordiziako ezker abertzalearen aldizkaria

Egin dezagun  
**URRATSA**

eskubide guztiak euskal presoak euskal herrira

## Manifestazio Nazionala

Urtarrilaren 8an 17:30etan Bilboko Aita Donostia plazatik

[www.egindezagunurratsa.info](http://www.egindezagunurratsa.info)